**ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLA (*ARABA*)**

**CUADRILLA DE MONTAÑA ALAVESA (*ALAVA*)**

| ARAUDIA | REGLAMENTO |
| --- | --- |
| 1. Maeztuko Futbol 6 Txapelketa 2026ko abuztuaren 22an egingo da, larunbatean, Maeztuko Zumaldeko Kirol Gunean, partaidetza- eta jolas-izaerarekin eta kirol-praktika sustatzeko izaerarekin. | 1. El torneo de Futbol-6 de Maestu se celebrará el sábado 22 de agosto de 2026 en el Complejo Deportivo de Zumalde de Maestu, con un carácter participativo, lúdico y de fomento de la práctica deportiva. |
| 2. Txapelketa goizez eta arratsaldez jokatuko da. Jarduera goizean 11:30ean hasiko da eta arratsaldean 16:00etan. (Gutxi gorabeherako ordutegiak). | 2. El torneo se jugará durante la mañana y la tarde. El horario de inicio de la actividad será por la mañana a las 11:30 h y por la tarde a las 16:00h. (Horarios aproximados). |
| 3. Torneoaren izen-ematea Arabako Mendialdeko Kuadrillako web orriaren bitartez egin behar dira www.arabakomendialdea.eus. | 3. Las inscripciones al Torneo se harán a través de la página web de la Cuadrilla de Montaña Alavesa www.arabakomendialdea.eus |
| 4. Txapelketa parte-hartzaile guztientzako ingurune seguru, inklusibo eta errespetuzkoa bermatuz egingo da. | 4. El torneo se realizará garantizando un entorno seguro, inclusivo y respetuoso para todas las personas participantes. |
| 5. TALDEKO ORDEZKARIA adinez nagusia izango da ete bere eginkizuna da txapelketan zehar bere taldeak eta publikoak portaera ona izan dezaten zaintzea, kiroltasun-giroa bultzatuz eta jokabide desegokiak desagerraraziz. Hauek izango dira Torneoan izango dituen eginkizunak:<br>- Taldearen eta jokalarien inskripzioa egitea.<br>- Txapelketaren Protokoloa eta Araudia nahitaez ezagutzea eta bere taldeari eta bere publikoari helaraztea. | 5. LA PERSONA DELEGADA DEL EQUIPO es una figura mayor de edad, cuya función principal es velar por el buen comportamiento de su equipo y público durante el Torneo, favoreciendo un clima de deportividad y erradicando los comportamientos inapropiados. Sus funciones en el Torneo serán las siguientes:<br>- Realizar la inscripción del equipo y de sus jugadoras y jugadores.<br>- Conocer obligatoriamente el Protocolo y el Reglamento del Torneo y transmitírselo a su equipo y público propio. |

| | |
|---|---|
| - Bere taldearen eta bere publikoaren portaera gainbegiratzea, errespetu- eta kiroltasun-arauen arabera jarduten dutela ziurtatuz.<br>- Portaera desegokien aurrean epaileei protokoloa aplika dezaten eskatzea, eta edozein gorabehera garrantzitsu epaileei eta erakunde antolatzaileei jakinaraztea.<br>- Antolakuntzak propio banatutako besokoa eraman beharko du, nahitaez, txapelketan parte hartzen duten gainerako taldeek, ikusleek eta agenteek identifika dezaten. | - Supervisar el comportamiento de su equipo y público propio, asegurándose de que actúan conforme a las normas de respeto y deportividad.<br>- Solicitar la aplicación del protocolo al cuerpo arbitral ante comportamientos inadecuados. Comunicando cualquier incidente relevante al cuerpo arbitral y a las entidades organizadoras.<br>- Deberá portar obligatoriamente el brazalete que la organización distribuirá a tal efecto para su identificación por parte del resto de equipos, espectadoras y agentes que intervienen en Torneo. |
| 6. Segurtasun- eta bizikidetza-arrazoiengatik, DEBEKATUTA dago alkohola kontsumitzea, bai jokalekuan, bai jendearentzako eremuan. | 6. Por motivos de seguridad y convivencia, queda PROHIBIDO el consumo de alcohol tanto en el terreno de juego como en el área destinada al público. |
| 7. Txapelketa honen antolatzaileak beretzat gordetzen du errespeturik gabeko, indarkeriazko edo diskriminazioko portaerak dituen edozein pertsona (jokalariak, senideak, laguntzaileak edo ikusleak) kargutzeko, zigortzeko edo kanporatzeko eskubidea; hala nola irainak, mehatxuak, laidoak eta jokabide matxista, arrazista, xenofoboa, LGTBIQ+fobikoa edo pertsonen duintasunaren aurkakoa, bai eta partida edo txapelketa aldi baterako bertan behera uztea ere. Horrelako egoeraren bat ikusten edo pairatzen baduzu, jakinarazi antolatzaileari, dagozkion neurriak hartu ahal izan ditzan. | 7. La organización de este torneo se reserva el derecho de amonestar, sancionar o expulsar a cualquier persona (jugadores/as, familiares, acompañantes o espectadores/as) que incurra en comportamientos irrespetuosos, violentos o discriminatorios, tales como insultos, amenazas, vejaciones o conductas de carácter machista, racista, xenófobo, LGTBIQ+fóbico o cualquier otra que atente contra la dignidad de las personas y/o suspender el partido o el torneo de forma temporal. En caso de presenciar o sufrir una situación de estas características, se ruega comunicarlo a la organización para que pueda adoptar las medidas oportunas. |

| | |
|---|---|
| 8. Txapelketa hiru kategoriatan antolatuko da, adinaren arabera (haurrak, gazteak eta helduak). EZIN IZANGO DA BI KATEGORIATAN JOKATU. EDOZEIN ALDAKETA EGITEKO, ANTOLATZAILEAK BAIMENA EMAN BEHAR DU. | 8. Se establecen tres categorías según las edades (infantiles, juveniles y personas adultas). NO SE PODRÁ JUGAR EN DOS CATEGORÍAS DIFERENTES. CUALQUIER MODIFICACIÓN TIENE QUE SER AUTORIZADA POR LA ORGANIZACIÓN. |
| 9. Izena eman duten pertsona guztiek partida guztietan jokatzea gomendatzen da. | 9. Se recomienda que todas las personas inscritas jueguen en todos los partidos. |
| 10. Haurren kategorian, txapelketa honek ez du lehia-helbururik, eta udan kirol-jarduera ludikoa sustatzea du helburua, baita eskualdeko herrietako haurren arteko loturak ere. Ondorioz, ez da bukaerako faserik jokatuko. Haur mailako talde guztiek elkarren artean jokatuko dute ahalik eta partida gehien Txapelketa amaitu arte. | 10. En la categoría infantil, este torneo no tiene una finalidad competitiva y está encaminado a fomentar la práctica deportiva lúdica en periodo estival, fomentando los lazos de unión entre las niñas y los niños de distintas localidades de la Comarca. En consecuencia, no se disputará fase final. Todos los equipos infantiles jugarán entre sí el mayor número posible de partidos hasta la finalización del Torneo. |
| 11. Jarduera mota guztietako zaleei, adin nagusikoei eta adingabeei zuzenduta dago, taldeko arduradun heldu batek lagunduta. | 11. La actividad está dirigida a todo tipo de personas aficionadas, mayores de edad y menores acompañadas por una persona adulta responsable del equipo. |
| 12. Partiden garapena FAVAFUTSALeko epaileek kontrolatuko dute. Haien erabakiak apelaezinak izango dira. | 12. El desarrollo de los partidos estará controlado por personal colegiado de FAVAFUTSAL. Sus decisiones serán inapelables. |
| 13. Parte hartuko duten taldeen gehieneko kopurua mugatua da. Arabako Mendialdeko taldeek lehentasuna izango dute. Ez da inskripziorik onartuko ezarritako epetik kanpo, ezta txapelketaren egunean bertan ere. Talde bakoitzean gehienez 15 pertsonak eman dezakete izena. | 13. El número máximo de equipos participantes está limitado. Los equipos de la Montaña Alavesa tendrán prioridad. No se admitirán inscripciones fuera del plazo marcado, ni el mismo día del torneo. El máximo número de personas inscritas por equipo será de 15. |

| | |
|---|---|
| 14. Parte-hartzaileek jardueraren araudia betetzeko konpromisoa hartzen dute, eta haien eta gainerako parte-hartzaileen segurtasuna zainduko dute. | 14. Las personas participantes se comprometen a cumplir el reglamento de la actividad, velando por su seguridad y la del resto de las y los participantes. |
| 15. Antolatzaileak beretzat gordetzen du jardueraren garapena aldatzeko eskubidea, edozein egoerak horretara behartzen badu. | 15. La organización se reserva el derecho a modificar el desarrollo de la actividad si cualquier circunstancia le obliga a ello. |
| 16. Parte-hartzaile guztiek istripu-aseguru bat izango dute. Nahitaezkoa da taldearen inskripzio-fitxa osorik betetzea eta parte-hartzaileei eskatzen zaizkien datu guztiak adieraztea: izena, abizenak, jaioteguna, NAN, AIZ edo pasaportea (14 urtetik aurrera). Eskatutako datu horietakoren bat falta bada, parte-hartzaileari ez zaio alta emango aseguru kolektiboan, eta ezingo da haren onuradun izan. | 16. Todas las personas participantes contarán con un seguro de accidentes. Es obligatorio rellenar en su totalidad la ficha de inscripción del equipo con todos los datos que se solicitan de las personas participantes: nombre, apellidos, fecha nacimiento, DNI, NIE o pasaporte (a partir de 14 años). Si falta alguno de estos datos solicitados, la persona participante no será dada de alta en el seguro colectivo y no podrá ser beneficiaria del mismo. |
| 17. Erakundeak ez du bere gain erantzukizunik hartuko txapelketan zehar objektu pertsonalak galdu, ostu edo hondatzeagatik. Parte-hartzaileak erantzule izango dira kirol-materialari, ekipamenduei, instalazioei edo haien eskura jarritako beste edozein ondasuni egitez edo ez-egitez eragiten dizkieten kalteengatik, eta dagokion konponketa edo kalte-ordaina eskatu ahal izango zaio. Era berean, parte-hartzaile bakoitzak bere gain hartzen du bere osasun-egoeraren eta kirola egiteko gaitasunaren ondoriozko erantzukizuna, eta erakundea salbuesten du horri egotzi ezin zaion edozein gorabeheratik. | 17. La organización no asumirá responsabilidad por la pérdida, sustracción, extravío o deterioro de objetos personales durante el desarrollo del torneo. Las personas participantes serán responsables de los daños que, por acción u omisión, ocasionen al material deportivo, equipamientos, instalaciones o cualquier otro bien puesto a su disposición, pudiendo exigirse la correspondiente reparación o indemnización. Del mismo modo, cada participante asume la responsabilidad derivada de su estado de salud y de su aptitud para la práctica deportiva, eximiendo a la organización de cualquier incidencia no imputable a la misma. |

18. 3/2018 Lege Organikoarekin (DPBEDBLO) eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrarekin (RGPD EB 2016/679) bat etorriz, parte-hartzaileen datu pertsonalak erakundearen tratamendu automatizatu batean sartuko dira. 14 urtetik beherako parte-hartzaileen kasuan, inskripzio-fitxa amak, aitak edo legezko tutoreak sinatu beharko du nahitaez, eta beren datuak tratatzeko baimena eman beharko dute berariaz.

    Datuak biltzearen helburu bakarra da txapelketaren antolaketa, kirol-antolaketa eta istripu-asegurua kudeatzea, bai eta erakundearen etorkizuneko jarduerei buruzko informazioa bidaltzea ere.

    Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko edo aurka egiteko eskubideak baliatzeko, interesdunak (edo haren legezko ordezkariak, adingabeen kasuan) mezu elektroniko bat bidali beharko du arabakomendialdea@arabakomendialdea.eus helbidera.

19. Irudi-eskubideak. Txapelketa sarbide libreko espazio batean garatzen da eta helburu publiko, ludiko eta informatiboa du. Horregatik, irudiak hartzeko eta zabaltzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:.

    **Irudi osagarriak edo orokorrak**: Antolatzaileek partiden eta instalazioen argazki edo bideo orokorrak edo panoramikoak jaso eta argitaratu ahal izango dituzte, informazioa

18. De conformidad con la Ley Orgánica 3/2018 (LOPDGDD) y el Reglamento General de Protección de Datos (RGPD UE 2016/679), los datos personales de las personas participantes se incorporarán a un tratamiento automatizado de la organización. En el caso de participantes menores de 14 años, la ficha de inscripción deberá ser firmada obligatoriamente por su madre, padre o tutor/a legal, autorizando expresamente el tratamiento de sus datos.

    La finalidad exclusiva de la recogida de datos es la gestión organizativa, deportiva y del seguro de accidentes del torneo, así como el envío de información sobre futuras actividades de la entidad.

    Para ejercer los derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación u oposición, la persona interesada (o su representante legal en caso de menores) deberá enviar un correo electrónico a arabakomendialdea@arabakomendialdea.eus.

19. Derechos de imagen. El torneo se desarrolla en un espacio de libre acceso y tiene una finalidad pública, lúdica e informativa. Por ello, la toma y difusión de imágenes se regirá por los siguientes criterios:

    **Imágenes accesorias o generales:** La organización podrá captar y publicar fotografías o vídeos de carácter general o panorámico de los partidos y las instalaciones

| | |
|---|---|
| emateko, artxibatzeko eta ekitaldia sustatzeko. Ikusleak edo jokalariak modu osagarrian eta ez indibidualizatuan agertzen diren plano orokorrak direnez, ez da aurretiazko baimenik beharko txapelketako kanal ofizialetan argitaratzeko. | con fines informativos, de archivo y promoción del evento. Al tratarse de planos generales donde el público o los jugadores aparecen de forma accesoria y no individualizada, no se requerirá un consentimiento previo para su publicación en los canales oficiales del torneo. |
| Banakako irudiak (Lehen planoak): Banakako argazki edo bideoak, lehen planoak edo zuzenean parte-hartzaile batengana bideratutako erretratuak hartzeko, argitaratzeko edo zabaltzeko, haren berariazko baimena beharko da. | Imágenes individualizadas (Primeros planos): Para la captación, publicación o difusión de fotografías o vídeos de carácter individualizado, primeros planos o retratos enfocados de forma directa en una persona participante (donde esta sea el elemento principal de la imagen), se requerirá su consentimiento expreso. |
| Adingabeen babes espezifikoa: 14 urtetik beherako parte-hartzaileen banakako irudien edo lehen planoen kasuan, argitaratzeko nahitaezkoa izango da amaren, aitaren edo legezko tutorearen berariazko eta idatzizko baimena. Adingabeak 14 eta 17 urte bitartean baditu, bere baimena eman beharko du. | Protección específica de menores: En el caso de imágenes individualizadas o primeros planos de participantes menores de 14 años, la publicación requerirá obligatoriamente la autorización expresa y por escrito de su madre, padre o tutor/a legal. Si la o el menor tiene entre 14 y 17 años, deberá prestar su propio consentimiento. |
| Kentzeko eskubidea: edozein parte-hartzailek (edo haren legezko ordezkariak) edozein unetan eskatu ahal izango du erakundearen bitarteko ofizialetan argitaratutako irudi bat ezabatzeko, hura identifikatzeko modukoa bada, mezu elektroniko bat arabakomendialdea@arabakomendialdea.eus helbidera bidaliz. | Derecho de retirada: Cualquier participante (o su representante legal) podrá solicitar en cualquier momento la eliminación de una imagen publicada en los medios oficiales de la organización en la que sea identificable, enviando un correo electrónico a arabakomendialdea@arabakomendialdea.eus. |
| 20. Izena emateagatik, parte-hartzaile guztiek erregelamendu hau onartzeko eta betetzeko konpromisoa hartzen dute. | 20. Por el hecho de inscribirse, toda persona participante se compromete a la aceptación y cumplimiento de este reglamento. |